


DERMO

Hizotzgailu eramangarria

Diru-sareak

Diru-sarrerei dagokienez, proiektuak **hiru diru-sarrera** iturri nagusi aurreikusten ditu, **negozio-eredua dibertsifikatzeko** eta bezero edo **kanal bakar baten menpekotasuna murrizteko** helburuarekin.



Lehenik, diru-sarrera nagusia **Osakidetza** litzateke, bezero instituzional gisa jardungo lukeena. Eredu honetan, **Dermok** bere hozkailu eramangarriak zuzenean **Osakidetzari salduko lizkieke**, kontratu periodikoen bidez, hileko edo urteko gailu kopuru jakin bat hornituz, dagoen eskariaren arabera. **Ondoren**, Osakidetzak gailu horiek **behar medikoak betetzen dituzten pazientei eskainiko lizkieke**. Eredu honek **diru-sarrera egonkorrak eta errepi-kakorrak bermatzen ditu**, eta, aldi berean, produktua azken erabiltzaile askorengana iristea ahalbidetzen du osasun-sistema publikoaren bidez.

Bigarren diru-sarrera iturria gailuaren **alokairua** litzateke, Osakidetza-ren bidez **produktua eskuratu ezin duten pertsonei zuzendua**. Hau da, **aurretiazko baldintzak betetzen ez dituztenei edo produktua aldi baterako behar dutenei**. Alokairu-zerbitzu hau batez ere **farmazia laguntzaileen bidez** eskainiko litzateke, erabiltzaileei gailua denbora-tarte jakin batean erabiltzeko aukera emanez. Aukera hau bereziki egokia da bidaia puntualetarako, tratamendu aldi baterako edo sendagaiak hotzean **modu seguru, higieniko eta antibakterianoan kontserbatu** behar diren egoeretarako.



Azkenik, hirugarren diru-sarrera iturria **publizitatea eta osasun-sektoreko** erakundeekin lankidetzak lirateke. Gailuak **espazio espezifiko bat izango luke farmazia-enpresen, laborategien edo osasunarekin lotutako erakunde**en publikitatea txertatzeko. Diru-sarrera gehigarriak sortzeaz gain, lankidetzak horiek **balio erantsia emango** liokete **produktuari**, erabiltzaileen artean **sinesgarritasuna, konfiantza eta aitortza handituz**, osasun-arloko marka eta erakunde entzutetsuekin lotuta egoteagatik

